



2021/2022 IKASTURTERAKO ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO MATRIKULAZIO ARAU ETA TASAK

KONTZEPTUA

1.- Arau honen prezio publikoko objektu den Nafarroako Toki- Ogasunen martxoaren 10 eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denarekin bat dator.

ORDAINKETAREN BETEBEHARRA

Ikasle berriek **40 €** ordainduko dituzte matrikula gisa, eta, hartara, erreserbatuta edukiko dute beren plaza. Dena dela, urteko matrikularen aurrerakintzat hartuko da zenbateko hori, eta azken ordainagiritik deskontatuko zaie.

2.- Ordainketaren betebeharra norberari dagokion ikasturtearen izen-ematearen unean hasten da eta hau ikasturte horietan parte hartuko dutenen aldetik egin behar izango da.

3.- Musika-tresnaren matrikula zenbatekoak kantitate berdineko hiru ordainketatan egingo dira banku-helbideratzearen bidez, ekaina (plaza erreserba), urria eta urtarrileko hilabeteetan.

4.- Talde ikasgaietako matrikula zenbatekoak kantitate berdineko bi ordainketatan egingo dira banku-helbideratzearen bidez, ekaina (plaza erreserba) eta urriko hilabeteetan.

Interesatuak epeko ordainketari uko egiteko edo ordainketak lehenago burutzeko aukera izango du, aldez aurretik Orreaga Musika Eskolari horren berri emanez.

5.-Ikasturtea bukatzean kuoten ez ordaintzea emango balitz, matrikulazio berri baterako aukera galduko litzateke.

KUDEAKETA ETA DIRU-BILKETAREN ARAUAK

6.-Matrikularen zenbatekoa bi edo hiru epeetan biratuko da (matrikulazio mota edo modalitatearen arabera), ordainketa erraztu ahal izateko. Hori dela eta, ordainagiriaren ordainketa matrikulaturiko pertsonen matrikula burutzean adierazitako banku-kontura helbideratuko da.

7.- Matrikulatu ondoren eta ikasturte akademikoa bukatu baino lehen ikasketak utzi nahi dituzten ikasleek musika eskolako zuzendaritzari horren berri eman beharko diote idatziz, uztearen arrazoiak azalduz.

Borondatez ikasketak utzi dituzten ikasle horiei ez zaie lehenengo kuota itzuliko. Izan ere, musika eskolaren aldetik ikasle horri gorde izan zaion plazarekin batera irakaslegoaren ordutegi lektiboaren barruan toki bat egokitu izan zaio eta hori ikasturte oso baterako konpromezua da.

Ikasturtearen hasieraren data horretatik aurrera burututako borondatezko ikasketen uzteek ikasturtearen ordainketaren zenbateko osoa ordaindu behar izatea suposatuko dute, honako salbuespenezko kasuetan izan ezik:

- Ikasleak istripu larria badu, Mediku Espezialista batek bidalitako mediku txostena aldeztu aurretik aurkeztu behar da, horrek bere instrumentuak praktikatzea eragozten duelako.
- Ikasleak gaixotasun larria badu, Mediku Espezialista batek bidalitako txostena aldeztu aurretik aurkeztu behar da, horrek bere instrumentuak praktikatzea eragozten duelako.
- Ikaslea hiltzen bada.
- Ikasleak ikasturtean zehar modu jarraituan joatea eragozten dizkieten eta larriak diren bestelako arrazoiak baditu. Kausa horiek Patronatuaren Batzordearen aldetik baloratuak eta arrazoituak izango dira.

8.-Tarifen ordainketa modu honetan egingo da: **Ekaineko** hilabetean 1. ordainketa, plaza erreserbatu ahal izateko. 2. ordainketa **urrian** burutuko da eta 3. a **urtarrilean** (musika-tresnen matrikulazioetarako).

9.-Zenbatekoak interesatuak erraztutako kontura kargatuko dira, hilabete bakoitzaren hasieran. Epe horretan ordainketari aurre egiteko inbertsio-funtsa egon beharko da.

10.- Bi ordainagiriren **ordainketaren ez betetzeak** ikaslearen **klaseen etenaldia** suposatuko du. Diru – sarreraren epea funtsa nahikorik gabe gainditzen bada, premia-prozesua martxan jarriko da, modu horretan etorkizuneko matrikulazio baten aukera galduko delarik.

PLAZA MUGATUAK:

Eskolak instrumentu zehatz batzuetan plazak mugatzeko eskubidea gordetzen du. Kasuren batean gehiegizko eskakizuna dela eta eskaera guztiak onartzeko plaza nahikorik ez badago, instrumentuen espezialitatean ikasleak onartzearen lehentasuna honakoa izango da:

1. 7 urteko ikasleria (matrikula eskakizuna egiten den berezko urte horretan adin hori beteko duena), Zentroko Plangintzaren barruko Iniziazio Musikaleko 3 kurtsoak burutu dituenak.
2. 7 urteko ikasleria (matrikula eskakizuna egiten den berezko urte horretan adin hori beteko duena), Zentroko Plangintzaren barruko Iniziazio Musikaleko 2 kurtso burutu dituenak.
3. 7 urteko ikasleria (matrikula eskakizuna egiten den berezko urte horretan adin hori beteko duena), Zentroko Plangintzaren barruko Iniziazio Musikaleko kurtso bat burutu duena.
4. Lehenengo Instrumentu bezala aukeratu duena bigarren bezala hautatu duenaren aurretik.
5. Patronatuari dagokien udaletxeetan erroldaturiko ikasleria.
6. Adinez txikiko ikasleria.
7. Berdinketa badago, interesatuak deituta zozketa publikoa burutuko da. Prozesu hau matrikulazio prozesua eta gero aplikatuko da behar izatekotan, datorren ikasturterako ez delarik metaketarik edo itzaroteko zerrendarik egongo.

Edozein pasartek hurrengoaren aurrean lehentasuna izango du beti. Behin matrikulazio epea bukatuta, matrikulazio berriak bete gabeko plazak egotekotan onartuko lirateke soilik.

ESPEZIALITATEAK

Ahotsa: Kantua.
Instrumentalak

Haize metala: Tronpeta, Tronboia, Tuba, Bonbardinoa.

Haize egurra: Klarineta, Zeharkako txirula, Saxofoia, Txistua, Gaita.
Teklazko instrumentuak: Akordeoia, Trikitixa, Pianoa, Piano modernoa.
Haria: Gitarra klasikoa, Bibolina, Arpa.
Perkusioa: Perkusioa, Bateria.
Elektrikoak: Gitarra elektrikoa, Baxu elektrikoa.

ZIKLOEN ARABERAKO TASAK

IKASGAIA	ERROLDATUEN TASA	EZ ERROLDATUEN TASA
Musika eta mugimendua	186 €	372 €
Iniziazio musikala	186 €	372 €
Instrumentua. Taldekatze instrumentala/Ahozkoa. Hizkuntza musikala.	435 €	870 €
Bakarriz Hizkuntza musikala	186 €	372 €
Bakarriz Taldekatze Instrumentala edo Ahozkoa.	186 €	372 €
Bigarren Instrumentua	250 €	500 €
Kontserbatorioko sarrerarako Prestakuntza	516 €	1.032 €